



**EPAH!** Espazio Publikoaren  
Aktibazio eta  
Hobekuntza Plana!

¡Plan de Activación  
y Mejora del  
Espacio Público!


**PAM!**

**Amara Berri**

## ZER NAHI DUGU?

Hiritarren bizi-kalitateak zerikusi handia du hiriko espazio publikoaren ezaugarriekin: nolakoak diren kaleak eta plazak, nola dauden konektatuta, zer-nolako mugikortasuna laguntzen duten, zeintzuk diren egoteko tokiak, merkataritza-guneak eta berdeguneak, zer-nolako harremanak sortzen diren, nolako den bizikidetza... Auzoan ondo bizi nahi badugu, elkarrekin bizitzeko espazio publiko on bat behar dugu.

EPAH!,  
Amara Berriko Espazio  
Publikoaren Aktibazio  
eta Hobekuntza Planak  
Donostian biztanle gehien  
dituen Amara Berri auzoko  
espazio publikoak hobetzeko  
eta aktibatze hainbat  
proposamen zehazten ditu.



# NOLA EGIN DUGU?

Hiria elkarrizketa eta elkarreragin etengabeen eraikitzen denez, EPAH! prestatzeko, eragile ezberdinen —udal-erakundeak, elkarte sozial eta kulturalak, egoiliarak eta hiritarrak, oro har— diagnostikoa eta proposamenak biltzeko parte-hartze prozesu bat egin dugu. Horiek horrela, analisi teknikoa egiteaz gain, elkarten eta auzotarren interesak eta beharrak jaso ditugu, proiektu bateratu bat sortu ahal izateko. Donostiako Udaleko Herri Partaidetza zerbitzuak sustatutako proiektu hau Paisaje Transversal enpresak zuzendu eta koordinatu du.

Auzoaren izaera konplexu eta anitza errespetatzeko eta hobekuntza inklusiboak proposatzeko, prozesuak arreta berezia jartzen du bost perspektiba hauetan:

— **Generoa**

— **Kultura-aniztasuna eta pertsona migratzaileak**

— **Haurrak**


— **Adinekoak**

— **Aniztasun funtzionala**

## Elkarrizketak eragile nagusiekin

12 elkarrizketa

187 pertzepzio




PERTZEPZIOAK GAIEN ARABERA pertzepzio guztiekin alderatuta

- + Amara Berri Auzo Elkarte
- + Amara Berri Guraso Elkarte (Morlans)
- + Amara Berri Guraso Elkarte (Ferrerias)
- + Ikasbide Kultur Elkarte
- + Emakumeak eta Hiria Foroa
- + Secretariado Gitano fundazioa
- + SuperXagu Jai Batzordea
- + Urrats Euskaltea
- + Elkartu
- + Gazteen Batzarra

## Mapeo kolaboratiboa

27 parte-hartzaile

13 emakume + 14 gizon




PERTZEPZIOAK GAIEN ARABERA pertzepzio guztiekin alderatuta


## Formularioen postontziak

138 FORMULARIO

8 posta elektronikoz jasoak



PERTZEPZIOAK GAIEN ARABERA pertzepzio guztiekin alderatuta



PARTE-HARTZAILEEN PROFILA, ADINA ETA GENEROA

## Diseinu kolaboratiboko tailerra

23 parte-hartzaile

10 emakume + 13 gizon



### ESPAZIO PUBLIKOAREN DIMENTZIO HIRUKOITZA

Metodologia honekin, lantzen diren edukiak hiru dimentsiotatik egituratu eta koordinatu daitezke, espazio publikoen arrakasta hiru dimentsio horien mende baitago:



Irisgarritasuna eta konektibitatea



Erosotasuna eta itxura (bizigarritasuna)



Erabilerak eta kudeaketa (aktibitatea)

## ZEIN DA PLANA?

- AUZO ATSEGINAGOA ETA BIZIGARRIAGOA ERAIKITZEA
- HIRI-PAISAIA ETA MUGIKORTASUNA HOBETZEA
- AKTIBAZIO SOZIAL ETA KOMUNITARIOAK EGITEA
- IDENTITATEA BABESTE
- ANIZTASUNA BULTZATZEA



# EPAH!

# LI. ESPAZIO SARETUAK

Auzoko espazio publikoak eta bertan gertatzen dena konektatzen dituzten eguneroko ibilbide eta bideen sarea hobetzea.

## LI\_1 Irisgarritasun unibertsala bermatzea eta konexioak hobetzea.


01. Ibilbide irisgarriak. Espazio publikoan irisgarritasuna oztopatzen duten trabak (kartel komertzialak, seinaleztatu gabeko altzariak, terrazak, loreontzi-euskarriak, eta abar) saihesteko.
02. Oinezkoen espazioa hobetzea eta zabaltzea. Kaleak berriz diseinatzea, mugikortasun iraunkorrari eta oinezkoen zirkulazioari lehentasuna emanda.
03. Barruko espazio publikoetarako sarbideak hobetzea. Plaza eta atzealdeko guneeetan sartzeko puntuak berritzea, berrikuntzen eta seinaleztapenaren bidez.

## LI\_2 Auzo erosoagoa, atsegina eta seguruagoa eraikitzea.

04. Oinezkoen, autoen eta bizikleten arteko bizikidetzeta. Mugikortasun-puntu gatatzak konpontzea, abiadura murriztuta, hainbat erreki kenduta, ibilbideak berriz diseinatuta, bizikletentzako aparkaleku berriak gaituta, eta abar.
05. Inpaktu akustikoa murriztea. Ibilgailuen zirkulazio handiena duten kaleetan kutsadura akustikoa arintzeko balio duten materialak eta elementuak erabiltzea, eta Anoetako ekitaldien soinu-inpaktua aztertzea.
06. Puntu arriskutsuak. Segurtasun falta eragiten duten edo arriskutsutzat jotzen diren puntuetan, argiztapena, hiri-paisaia, ikusgaitasuna eta aktibitatea lantzea.

## LI\_3 Ibilbideak hobetzea, pasealekua hornitzea eta fluxuak sustatzea.

07. Oinezkoentzako ibilbide osagarriak. Ibilbide horien diseinua, materialak, ekipamenduak, hiri-paisaia eta beste ezaugarri batzuk hobetzea.
08. Eskolarako bideak. Eskolarako bideekin bat egiten duten edo haurrak oinez ibiltzera animatzen dituzten ibilbide seguru eta erakargarriak sortzea.
09. Ibilbide osagarriak. Hurbileko ariketa-ekipamenduekin ibilbideak hobetzea, naturarekin kontaktu estuagoa ahalbidetzen duten oinezkoentzako espazioetan barrena.



Amara Berri  
irisgarria eta  
konektatua

## L2. ESPAZIOEN SAREA

Auzoko plaza eta parke bakoitzaren izaera eta aktibitate propioa indartzea, auzotarren beharrian askotarikoak asetzen dituzten espazio osagarrien sare aberats eta anitza sortzeko.

### L2\_1 Plaza bakoitzaren izaera berezia indartzea


10. Espazioak karakterizatzea. Espazioen izaera propioa eta berriazko erabilera sustatzeko, eta espazio bakoitzak dituen beharrak asetzeko.

- Portutxo plaza
- Soldadu plaza
- Marinel plaza
- Ikasketa plaza
- Marcelino Soroa plaza
- Ignacio Mercader plaza
- Probestu plaza
- Osinaga plazak
- Rafael Ruiz Balerdi
- Bizkaia pasealekua
- Guau parkea
- Amaiur parkea
- Karlos I.aren lurpeko pasabidea
- Bloke arteko espazio

11. Txoko lasaien sarea. Lasai ibiltzeko hurbileko espazio eta txokoak sustatzeko eta erabilera lasaiagoak ahalbidetzeko.

### L2\_2 Bizikidetzaren hobetzea eta ekimenak bultzatzea.

- 12. Bizikidetzaren hobetzea eta gatazka-bitartekaritza. Bizikidetzaren programa eta hautemandako gatazkei eta segurtasun faltari aurre egiteko bitartekaritza-estrategiak, denon artean irtenbideak aurkitze aldera.
- 13. Ekimenak bultzatzea espazio publikoan. Espazio publikoan jarduerak eta ekitaldiak antolatzeko eman beharreko urratsak.



Amara Berri  
anitza eta  
aktiboa

## L3. ZENTRALTASUN BERRIAK

Auzoaren identitatea indartzea espazio sinbolikoenen berezitasuna eta izaera propioa landuta eta jarduera soziokulturalak sustatuta.

### L3\_1 Zentraltasun-espazioak sustatzea.

14. Zentraltasun-nodoak karakterizatzea. Auzoko gune guztietan zentraltasun-espazioak ezartzea, azpizentro moduan, bai eta guneen arteko konexioak ere. Jarduera-aniztasuna ahalbidetzen duen ekipamendua egokitzea.

- Sahatsaren plaza + José María Paternina Alonso plaza
- Gregorio Ordóñez
- Ferrerías + Armerías
- Mutualitate plaza: Mercaderes + Etxeberri + Kofradia donostiarrak
- Aitzol parkea

### L3\_2 Auzo erosoagoa, atseginagoa eta seguruagoa eraikitzea.

15. Kudeaketa artistiko eta kulturala. Plazetan jarduera eta ekitaldi soziokulturalak programatzea: arte eszenikoak, kontzertuak, azokak, eta abar.
16. Auzoko plataforma. Auzoko eragileen arten, auzoko plataforma, sare edo ekimen baten sorrera sustatzea, kolektiboek elkarrekin eta koordinatuta lan egiteko aukera izan dezaten.

Amara Berri berezia eta identitarioa

# EKINTZA TRANSBERTSALAK

**Gainera, delako proiektuetan eta espazioetan aldi berean egingo diren hamar ekintza transbertsal proposatzen ditugu.**

- Zero kota. Oinezkoentzako pasabideetan, espaloiairen eta galtzadaren arteko aldea ekiditea, irisgarritasuna hobetzeko.
- Seinaleztapena. Espazio publikoan seinale-sistema bat ezartzea, honako hauek errazteko: mugikortasuna, orientazioa eta kale zein plazen ezagutza, bai eta bertan gertatzen denera ere.
- Zirkulazioa baretzea. Ibilgailuen trafikoaren inpaktua murrizteko eta auzoaren segurtasuna eta bizigarritasuna hobetzeko.
- Hiri-altzariak. Elementu berriak (bankuak, paperontziak, iturriak eta beste batzuk) txertatzea, espazio publikoaren erabilera bultzatzeko.
- Argiztapena. Argiztaperen sistemetan esku hartzea edota berriak txertatzea, segurtasuna, erosotasuna eta hiri-paisaiaren izaera propioa hobetzeko.
- Landaredia. Landare berriak ekartzea eta dauden landareak hobeto mantentzea, ikusgaitasuna eta hiri-paisaia optimizatzeko.
- Mantentzea. Eremu gatatzatsuenen mantentzea hobetzeko lan egitea, eremuen degradazioa saihesteko eta segurtasuna indartzeko.
- Berariazko ekipamendua. Espazio bakoitzarentzako ekipamendua (jolaslokiak, kirol-guneak, adinekoentzako espazioak, eta abar) beharren arabera diseinatzea eta instalatzea.
- Bitartekaritza, dinamizazioa eta programazioa. Programa hezigarriak, kulturalak eta artistikoak garatzea, esku-hartzeak gizarte-eremura ere eramateko.
- Komunikazioa. Noranzko biko komunikazio-sistemak definitzea eta garatzea, informaziorako sarbidea eta auzotarren parte-hartzea errazteko.

# JARDUERA-PLANOA

Lanaren emaitza plano honetan ikus daiteke. Ildo estrategiko bakoitzeko proiektuak jasotzen ditu, bai eta ekintza transbertsalak ere.

## EKINTZA TRANSBERTSALAK

- a1\_Zero kota
- a2\_Seinaleztapen-sistema
- a3\_Ibilgailuen zirkulazioa baretzea
- a4\_Hiri-altzariak egokitzea
- a5\_Argiztapena egokitzea
- a6\_Landaredia egokitzea eta mantentzea
- a7\_Espazio publikoa berrikustea eta mantentzea
- a8\_Berariazko ekipamendua
- a9\_Dinamizazioa, bitartekaritza eta programazioa
- a10\_Komunikazioa

## AKTIBAZIO- ETA HOBEKUNTZA-PROIEKTUAK

### AMARA BERRI IRISGARRIA ETA KONEKTATUA, "ESPASIO SARETUAK"

#### L1\_1 IRISGARRITASUN UNIBERTSALA BERMATZEA ETA KONEXIOAK HOBTETZEA

- 01 Ibilbide irisgarriak \*
- 02 Oinezkoen espazioa hobetzea eta zabaltzea
- 03 Barruko espazio publikoetarako sarbideak hobetzea

#### L1\_2 AUZO EROSOAGOA, ATSEGINAGOA ETA SEGURUAGOA ERAIKITZEA

- 04 Oinezkoen, autoen eta bizikleten arteko bizikidetzak e
- 05 Inpaktu akustikoa murriztea e
- 06 Puntu arriskutsuak

#### L1\_3 IBILBIDEAK HOBTETZEA, PASEALEKUA HORNITZEA ETA FLUXUAK SUSTATZEA

- 07 Oinezkoentzako ibilbide osagarriak \* e
- 08 Eskolarako bideak \*
- 09 Ibilbide osagarriak

### L2. AMARA BERRI ANITZA ETA AKTIBOA, "ESPASIOEN SAREA"

#### L2\_1 PLAZA BAKOITZAREN IZAERA BEREZIA INDARTZEA

- 10 Espazioak karakterizatzeko \* e
- 11 Txoko lasaien sarea \*

#### L2\_2 BIZIKIDETZA HOBTETZEA ETA EKIMENAK BULTZATZEA

- 12 Bizikidetzak hobetzea eta gatazka-bitartekaritza \*
- 13 Ekimenak bultzatzea espazio publikoan, "eman beharreko urratsak"


### L3. AMARA BERRI BEREZIA ETA IDENTITARIOA, "ZENTRALTASUN BERRIAK"

#### L3\_1 ZENTRALTASUN-NODOAK KARAKTERIZATZEA

- 14 Zentraltasun-nodoak karakterizatzea \* e

#### L3\_2 AKTIBAZIO SOZIOKULTURALA

- 15 Kudeaketa artistiko eta kulturala \*
- 16 Auzoko plataforma \*



# MILA ESKER!